

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Forcada Arrieta

*Andoain,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Andoaingo Kale Nagusian jaio zen eta seme bakarra izan zen. Aita Errioxatik etorritakoa zen, eta ama Leintz Gatzagakoa. Aita alargun gelditu zen oso gazterik eta bigarren emakume batekin ezkondu zen. Seme bakarra izan zen eta 16 urterekin Andoaingo Telleria fabrika bulegoko lanetarako hartu bazuten hartu, horretan egin izan zuen lan erretiroa hartu arte. Txikitan, fraide batek erakutsita, ezpata-dantza dantzatzen ikasi zuela gogoratzen zuen ederki.

Zintak

AND-060

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-11-16
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Oso txikia zela hil zitzaion ama

- **Erref:** AND-060/002
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:01:49. **Bukatu:** 00:03:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Bi urte eta zortzi hilabete zituen ama hil zitzaionean. Orduko oroitzapen lausoa dauka. Sarkomak jota hil zen ama. Garai hartan, Andoaingo medikua don Agustin Amilibia zarautztarra zen. Gaztetan ez du gogoan bera gaixo egon izanik.</p>

Transkripzioa

- Daukat sensaziyo txiki bat, hola, nik nauzkan bi urte ta zortzi hillabete nere ama hil zanian, ta sensaziyo txiki bat badaukat, han, amonan ta aitonan-ta sukaldian, ama hil zanian, nola etorri zian familikuak-eta etorri

zian ta hola, ta hola... pixkat... jendia triste ta negarrez ta hola ta... daukat sensasiyo bat, ba, ordun ote zan, ama hil zanian. Baiño ez naiz gogoratzen ezerrez.

- Badakizu zer dela-eta hil zen? Gaixotasunen bat edo...?

- Bai, hezurretatikan, sarkoma-o esaten diyuen enfermedad hoi.

- Ordun, garai hartan, ez dakit holako gaixotasunak-eta asko izaten zian.

- Ordun sendatzeik ez zeon, gaiñea, ordun. Hala uste det nik behintzat.

Garai hartan hezurretako miñak eta hoik... ba!

- Medikuan-eta izaten al zan Andoañen?

- Bai, bai, bai. Andoañen bai. Garai hartan zan Andoaingo medikua, Zarauzko semia, don Agustin Amilibia izan bihar zun. Bai.

- Ordun oain bezelako konsultak eta anbulatoriak eta holakotan ez...

- Ez, ez, beren etxe partikularretan iten zian konsultak eta.

- Akordatzen zea zu medikuta noizbaitte juna?

- Gaztetan?

- Bai.

- Ez, ez.

- Oain baiño sanoxio igual, biharrek eakutsiya edo, fuerte jaioko ziñaten o haziko ziñaten.

- Bai, ni behintzat ez naiz gogoratzen hola gaixo egon [danik] eta hola. Ez naiz... Oain azkeneko ordu hoitan bi operaziyo txiki in zizkiaten, baiño, gaiñantzian, hola, gaztetan ez naiz gogoratzen hola gaixo egonik eta. Hortan suerte haundi bat euki det.

2. Aitona mikeletea

- **Erref:** AND-060/004
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:04:56. **Bukatu:** 00:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

<p>Aitona mikeletea zen. Erretiratu ostean, garbiketa-lanetan ibili zen. Mikeleteek "emakumeen lan" asko egiten zituzten etxean.</p>

Transkripzioa

- Akordatzen al zea aittonan lan hortaz zerbaitte?

- Ez, ez naiz gogoatzen uniformeaz ikusiya nik aittona. Ez naiz gogoatzen. Baiño erretiratu ta gero, gerra denboran ta hola, liempieza `Caja de Ahorros´ana-ta beak itten zittun.

- Hara!

- Bai, badakizu mikeletiak-eta diputaziyotikan ibiltzen zian, ta erretiratu zanian eman ziyuen, ba, garbiketaz-eta itteko. Hoi gogoatzen naiz, nola... eske etxetikan bertan gendun `Caja de Ahorros´a ta nola juaten nitzan ni aittonana garbiketan aitzen zanian ta hola. Eske, hola, mikeletiak eta guardak eta hoik "emakume lanak" asko in zittuen, e! Itten zittuen etxian. Ni gogoatzen naiz amonai... jesus, amonai! Beti etxeko lanak eta beak... este... trapuba lurrekua beak pasa ta, ba, han ibiltzen zian, bai.

- Ondo ikasita zeuden ordun...

- Bai, ohitura hoi. Badakizu, bere serbiziya kunplittu ta gero etxera etortzen zian ta zerbait in bihar ta... Gero, baratza zakan, ta baratzen ta...

3. Arrosarioa ez errezzatzeko martingalak

- **Erref:** AND-060/005
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Aitona eta amona oso erlijiosoak ziren, eta beti arrosarioa errezzatzen aritzen ziren. Joxek asmatu zuen trikimailua, berak arrosarioa errezzatu behar ez izateko.

4. Aita Andoainera etortzera animatu zutenekoa

- **Erref:** AND-060/007
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:07:47. **Bukatu:** 00:09:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita mekanikoa zen, eta "Cervera del río Alhama"n bizi zen. Behin, andoaindar batzuek Gipuzkoara joateko animatu zuten, eta hala etorri zen 21 urterekin.

5. Andoaingo auzoetako mutikoen arteko borrokak

- **Erref:** AND-060/010
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Auzoen artean ika-mika handiak egoten ziren lehen. Etxeberrieta, Kale Txiki eta Bastero ziren auzo nagusiak. Zumeakoek Bastero aldera jotzen zuten. Umeek gerrak egiten zituzten, harrika, elkarren kontra. Etxeberrietakoek gaizto-ospea zeukaten. Etxeberrietan futbol-zelaia zegoen, eta hara joaten ziren denak.

6. Umetako jolasak

- **Erref:** AND-060/012
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:15:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak aipatzen ditu: kanikak, gorde-gordeka, "a bule"ka, "guardias

y ladrones", pilotan... Andoainen, pilotarako zaletasun handia zegoen; baina pilotari profesionalik ez zen atera.

7. Pilotan denek jokatu ahal izateko moduak

- **Erref:** AND-060/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotan aritzen zirenean, nola antolatzen ziren aipatzen du. "Txokoka" jokatzeko zuten, denek jokatu ahal izateko.

8. Bainatzeko leku jakinak

- **Erref:** AND-060/018
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:18:12. **Bukatu:** 00:19:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Lehen, Leizaran ibaira joaten ziren bainatzera. Jende asko joaten zen hara, baita Lasartetik ere. Nolanahi ere, bazeuden bainurako beste leku batzuk: kanala, besteak beste. Bainatzerakoan, ez zegoen arrisku handirik, leku jakinetan bakarrik.

9. Neskak alde batetik, eta mutilak bestetik

- **Erref:** AND-060/019
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:19:32. **Bukatu:** 00:22:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Lehen, neskak eta mutilak ez ziren elkarrekin ibiltzen. Neska gutxi joaten zen orduan bainatzera, etxean ez baitzieten uzten. Lehen, beldurra zegoen, emakumeak ahulagoak zirelakoan. Umeak zirela, "la playa de las chicas" zegoen. Lehen, bainatzeko, galtza zaharrak janzten zituzten.

10. Arratsaldea antolatze ordutegia eta ohiturak

- **Erref:** AND-060/021
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:22:26. **Bukatu:** 00:23:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Ettxera goiz itzultzen ziren, jolasean ibili ostean. Ibaian ez ziren denbora luzez ibiltzen, bestela hoztu egiten ziren-eta. Siesta egiteko ohitura handia zeukaten lehen, kanpoan beroa egiten zuenean, etxean egon zitezen umeak.

11. La Salleko anaien abitua

- **Erref:** AND-060/023
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:25:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

5 urte zituela hasi zen eskolan, La Sallen. Eskola etxetik oso gertu zegoen. Gerra ostean, maisuak abituarekin ibiltzen ziren; Errepublikara garaian, ordea, abitua kenarazi egin zieten.

12. Soldaduekin tratua ona zeukaten

- **Erref:** AND-060/025
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:26:16. **Bukatu:** 00:27:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gogoan ditu gerra garaiko soldaduak; haiekin bazkaldu izan zuten eta tratua ona zeukaten. Soldaduak tiroka aritzen ziren; "pakun" hotsa egiten zuten tiroek. Gogoan du tiro haietako batek lagun bati hankan egindako zauria.

13. Beldurrik gabe itzulitakoen patua

- **Erref:** AND-060/028
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:30:19. **Bukatu:** 00:31:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Andoaindak jende askok egin zuen alde. Gerora, asko bueltan etorri ziren. Itzulitako asko fusilatu egin zituzten; Andoainen, guztira, 18.

14. Osabek gerran pasa beharrekoak

- **Erref:** AND-060/030
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:31:54. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bi osaba frontean ibili ziren borrokan, eta kontzentrazio-esparruetan egon ziren; beste bat desagertu egin zen borrokan. 1942 inguruan itzuli ziren osabak esparru haietatik. Langileen Batailoietako baldintzak eta lanak aipatzen ditu.

15. Errazionamenduko elikagaien kontrola

- **Erref:** AND-060/031
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:33:25. **Bukatu:** 00:34:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Gerra ostean, Andoaingo alondegian egoten ziren errazionamendurako elikagaiak. Handik kontrolatzen zen dena; eta mikeleteek aztertzen zuten alkoholaren graduazioa.

16. "Tren txiki"ak salbatu zuen Andoain

- **Erref:** AND-060/033
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:37:14. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

"Tren txikiak" salbatu zuen Andoain. Haren bidez, hainbat elikagai ekartzen zituzten Nafarroatik, ezkutuan, ikatz azpian. Guardia Zibilak enteratu zirenean, tren-geltokira joaten hasi ziren; baina estraperloa egiten zuten lagunek ere hartu zituzten beraien martingalak.

17. Nafarrek Andoainen sortutako laguntasunak

- **Erref:** AND-060/034
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:39:45. **Bukatu:** 00:41:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

"Tren txiki"an, Nafarroako jende askok egiten zuen lan. Haiek laguntasun handia sortu zuten andoaindarrekin, eta dendak ireki zituzten Andoainen.

18. Emakumeak tranbian kontrabandoko ogia eramaten

- **Erref:** AND-060/037
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:42:14. **Bukatu:** 00:43:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Andoaingo emakumeak Donostiara joaten ziren tranbian, ogi zuria eramatera: batzuetan, harrapatu egiten zituen poliziak. Garai zailak izan ziren.

19. Fraideek dantza eta kanta bultzatzen zuten

- **Erref:** AND-060/040
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:47:41. **Bukatu:** 00:50:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantza soltea egiten zuten. Ezpata-dantzan ibilitakoa da Joxe. Fraideen artean, Sebastian anaiak erakusten zituen dantzak. Kantatzeko balio zuenak, koruan hasi behar izaten zuen nahitaez. Gerraren ondorioz, dantza-kontuan hainbat traba izan zituzten.

20. Ezpata-dantzako taldeak eta emanaldiak

- **Erref:** AND-060/041
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:50:27. **Bukatu:** 00:52:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Ezpata-dantzan, 10-14 urte bitarteko gazteak ibiltzen ziren. Taldeak zenbatekoak izaten ziren azaltzen du. Emanaldiak non egiten zituzten.

21. Ezpata-dantzako jantziak eta tresnak

- **Erref:** AND-060/042
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:52:33. **Bukatu:** 00:54:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Ezpata-dantzako trajea nolakoa zen deskribatzen du. Ezpatak txapa finezkoak izaten ziren.

22. Ezpata-dantzako txistulariak

- **Erref:** AND-060/044
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:54:52. **Bukatu:** 00:55:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Ezpata-dantza dantzatzean, txistulariekin ibiltzen ziren. Aizpuruatarrak izaten ziren txistulariak: aita, semea eta osaba.

23. Lehengo mezen egutegia

- **Erref:** AND-060/046
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:56:56. **Bukatu:** 00:58:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Lehen, mezak noiz izaten ziren azaltzen du.

24. Ikastearen garrantzia

- **Erref:** AND-060/049
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:01:21. **Bukatu:** 01:03:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

16 urterekin hasi zen lanean, bulegoko lanetan, teilerian. Etxean garrantzia ematen zioten hezkuntzari. Fraideetan zeudela, konturatzen ziren ikastea gauza ona zela; lehiakortasuna zegoen ikasleen artean.

25. Inguruko en arabera, euskaraz edo erdaraz

- **Erref:** AND-060/051
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:03:58. **Bukatu:** 01:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Joxe umea zela, euskaraz egiten zen dena kalean. Berak etxean erdaraz egiten zuen; baina, kalean, euskara. Euskara galarazita egon zen arren, euskaraz egiten zuten mutil koskorren artean. Amaren aldeko aitona-amonekin ere euskaraz egiten zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com